

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2715

1275/2025 EBAZPENA, ekainaren 5ekoa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Nagore Olariaga Fernández andrea zuzendariorde medikoaren (Arreta Integratuaren Zuzendaritza) kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Bilbo-Basurtuko ESlan.

Bilbo-Basurtuko ESlko zuzendari-gerentearen otsailaren 6ko 309/2023 Ebazpenaren bidez, Nagore Olariaga Fernández andrea zuzendariorde mediko (Arreta Integratuaren Zuzendaritza) izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESlan.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru-garren arau komuna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren erakunde sanitario integratuen 100/2018 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Nagore Olariaga Fernández andrea zuzendariorde medikoaren (Arreta Integratuaren Zuzendaritza) kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESlan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko ekainaren 30eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari, Bilbo-Basurtuko ESlko Langileen Zuzendaritzari eta Barrualde-Galdakaoko ESlko Langileen Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2025eko ekainaren 5a.

Bilbo-Basurtuko ESlko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.